

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEKO EKITALDIAK

• BARAKALDO-SESTAO ESlan

Azaroaren 30ean, 13:30etik 14:30era:

[Mintzodromoa](#), Barakaldon, Arrontegiko osasun-zentroan, 3. solairuan.

• BARRUALDE-GALDAKAO ESlan

Abenduaren 2an, 08:30etik 09:45era:

[Hitzaldiak «Bizitzaren amaieran arreta ahalik eta onena emateko asmoz» izenburupean.](#)

Galdakao-Usansolo Ospitaleko areto nagusian. Aldi bereko itzulpena izango da.

08:30 - 08:50: **Itxaso Bengoetxea**, Etxeko Ospitalizazioko Zerbitzuko medikua: «Trantsizio kontzeptuala XXI. mendeko zainketa aringarrietan. Beharrian aringarriak identifikatzea (NECPAL formularioa). Nola eragiten digu? Alertak».

08:50 - 09:10: **Irati Etxaburu**, Etxeko Ospitalizazioko Zerbitzuko medikua: «Euskal Autonomia Erkidegoan zainketa aringarriek ekiteko egoeraren diagnosia. Paziente ez-onkologikoaren identifikazioa zelan egiten dugun».

09:10 - 09:30: **Amaia Moreno Paul**, Onkologiako Zerbitzuko medikua: «Paziente onkologikoaren identifikazioa zelan egiten dugun».

Amaitzeko: [Ibilbide Profesionaleko Anekdotarik Onenaren II. Lehiaketaren sari-banaketa](#) eta ekitaldiaren amaiera.

• BIDASOKO ESlan

[«Euskara 2016an, Bidasoko ESlan» bideoa](#) ikusi eta [Mintzodromoa](#) egingo dute.

Azaroaren 28an, 13:30ean, Irungo erdialdeko osasun-zentroan.

Azaroaren 30ean, 13:30ean, Hondarribiko osasun-zentroan.

Abenduaren 2an, 13:30ean, Bidasoko ospitalean.

Abenduaren 15ean, 13:30ean, Dunboako osasun-zentroan.

• DEBAGOIENENKO ESlan

Azaroaren 30ean, goizeko 8,30etan:

[World coffee-a](#), ospitale zaharreko Udalaitez aretoan.

Gaia: «Gurasoen ardura umeen heziketan».

• DONOSTIALDEA ESlan

Abenduaren 2an, 13:00etan, ospatuko dute Eguna, Donostia Unibertsitate Ospitaleko ekitaldi-aretoan egingo den saioan. **Juan Ramon de la Puente** Donostialdea ESiko Pertsonaleko zuzendariak egingo ditu aurkezte-lanak, eta bi hitzaldi izango dira:

• **Bingen Uriondo** Egiako osasun-zentroko burua **GERTU programaren esperimentziaz** arituko da.

• **Ander Zuloaga** Donostialdea ESiko Euskara Arloko teknikariak ESiko zerbitzuen erabiltzaileek euskararen erabileraz zer iritzi dituzten azalduko du.

Bukatzeko, **VIII. Joanes Etxeberri saria** emango da eta Jose Ramon Furundarena Donostialdea ESiko Hematologiako atalburuak aurkeztuko ditu aurreko saritutako ekimenak: Egiako osasun-zentroaren «Diabetesaren talde-heziketa» eta Gipuzkoako Osasun Mentaleko Sarearen «Garenaz gozatuz».

• ZUZENDARITZA NAGUSIAN

Abenduaren 2an, 12:00etatik 13:30era:

• [Kutsidazu bidea](#), [Ixabel](#) eleberraren [irakurketa dramatizatua](#) egingo du bertako euskara-taldeak, txotxongiloak, musika eta irudiak erabiliz.

• **IV. Kafe Mundiala**, euskaraz ulertzeko eta hitz egiteko oinarrizko maila dutenen artean.

OSAKIDETZA SARITU DUTE PAZIENTE- EI EMATEN DIEN ARRETA BIKAINAGA- TIK

Araba ESla *Minaren kategorian* bere Minaren Unitateagatik, **Bilbo-Basurtu ESla** *Esklerosi Anizkoitzaren arloan* bere Esklerosi Anizkoitzeko Unitateagatik eta **Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea** *Pediatriako kategorian* bere Zerbitzu Pediatrikoagatik saritu dituzte azaroaren 11n Valentzian aurtengo *Best in Class* sarieretan. Osakidetzari, gainera, *e-osasuneko proiektu hobereenen Ohorezko Aipamena* aitortu zaio «Osakidetzako diagnostiko biologikoko sarea» proiektuagatik.



Edizio honetan Espainiako 871 zerbitzu eta 64 ospitale aurkeztu dira eta Osakidetza aurreko oso presente egon da arretaren kudeaketaren eta kalitatearen bikaintasunagatik osasun-erakunde hobereenak aitortzen dituzten sari hauetan. Izan ere, lehenago aipatutako sarituz gain, Bilbo-Basurtu ESla, Donostiako Unibertsitate Ospitalea eta Arabako Ospitale Psikiatrikoa finalista geratu dira beste 8 kategoriatan.

Osakidetzako Osasun Laguntzako zuzendari Antonio Arraiza bertan izan zen, eta, esan zuenez, «(sari hauek) *egindako lana aitortzeaz gain, bultzada bat dira Osakidetzak bikaintasunaren ildotik jarraitzeko pertsonen arretan eta kudeaketan egiten ari den lanean, eta, hain zuzen ere, horrek fidarazten du euskal gizartea bere osasun-sistemaz*».

Euskarari ateak zabaldu behar zaizkio lan-munduan

patxi saez soziolinguista

2015eko urrian argitaratu zuen [«Elefantea ikusi»](#) artikulua Patxi Saezek (Beasain, 1964). Bertan, euskararen eta euskalgintzaren ajei buruz hitz egiten zuen, argudiatuz euskalgintzak itsututa jarraitzen zuela nolabait arazo txikietan, hau da, zorrietan; eta aldiz, arazo nagusiak, elefanteak, ez dituela identifikatu.



Lan-munduaren euskalduntzea aurrera eraman behar zela proposatzen zuen. Alferrikakoak ikusten zituen hezkuntzan egiten ziren inbertsioak, gero lan-munduak deuseztatzen bazituen. Hala, Euskaltzaindia ikusten zuen lan hori gidatzeko erakunde aproposa, indar-metaketaren gidari gisa. Otsailean, Euskaltzaindiak euskarara biziberritzeko erronkei buruzko mintegia antolatu zuen, Saezen proposamenari tiraka.

Euskararen munduan, oraindik zorriak ikusten gabiltza ala identifikatu dugu elefantea?

Hemen, gakoa da euskara proiektu kolektibo bihurtzea. Jabetu behar dugu euskararen arazoa ez dela euskaldunena bakarrik, baita erdaldunena ere. Duela 50 urte baino hobeto gaude; proiektu hori gero eta kolektiboagoa da, baina oraindik ez da guztiz kolektiboa. Bide horretan, aferak eta erresistentziak egongo dira, dudarik gabe. Proiektua kolektibo bihurtzen den heinean, oztopoak eta trabak gaingituko dira. Adostasun minimoak bilatu behar dira horrela euskarak aurrera egin dezan. Egiten diren hitzarmen kolektiboen barnean, hitzarmen ekonomikoak, hitzarmen sozialak, hitzarmen ekologikoak eta hitzarmen linguistikoak ere egin behar dira.

Nola dagoela uste duzu euskalgintza gaur egun?

Euskalgintzak rol garrantzitsua izan zuen hasierako urteetan. Orduko lanak gabe, ez ginatke gauden tokian egongo. Bide horretan, hainbat erakunde sortu dira, eta erakunde horien artean adostasunetara iritsi behar da bidea zehazteko. Bidegurutze batean gaude, edo, batzuek esaten duten moduan, biribilgune batean, bueltaka eta bueltaka. Adostasun batera iritsi artean, eta norabidea zein izango den finkatu arte, bertan jarraituko dugu. Baina, norabidea zehaztuta, errazago izango da euskararen zabalkundean aurrera egitea. Eta euskalgintzak

zerikusi erabatekoa du horretan. Euskaltzaindiak otsailean euskararen erronken inguruko mintegia antolatu zuen, baina garbi utzi zuen berak ez zuela gidatuko proiektu hori, baizik eta bilgune moduan jardungo zuela. Sentsibilitate guztiak biltzeko prest agertzen da, eta batzorde bat ere eratu da, ni neu bertako kide naizena. Ondorengo pausoak identifikatzen gabiltza oraintxe bertan. Uste dut orain arteko pausoak irakaskuntzaren eta ezagutzaren esparruan eman diren bezala, orain erabileraren aldeko pausoak emateko garaia dela.

«Gakoa zera da: zuzendaritza eta erdi-mailako agintean dauden langileak inplikatzeko eta horiek sustatzaile nagusi moduan jartzea»

Lan-munduari begira, aurrerapausoak eman al dira euskara sustatzeko?

Poliki-poliki, euskararen behar naturala zabaltzen ari da lan-munduan. Egia da bultzada bat ere behar duela. Gakoetako bat lantegietan dauden botere-harremanak dira. Nik deitzen diot *hizkuntza-gatazkaren sindromea*. Definituta dut, eta euskara-plan bat lantegi batean jartzen den guztietan gertatzen da. Planak euskara erabiltzera behartzen ditu, eta orduan asko konturatzen dira urteetan erdaraz jardun duten lankideek euskaraz dakitela. Hizkuntza-jokabide hegemonikoa gaztelania zen orain arte, eta orain euskararen planak abian jartzen direnean, ezkutuan zeuden hizkuntza-jokabideak azaleratzen dira babes insti-

tuzional baten pean. Baina hor dagoena barne-gatazkak dira, eta euskaraplanek gatazka horiek konpontzeko erronka dutela ulertu behar da.

Zer-nolako ezberdintasunak ikusten dituzu sektore pribatuaren eta publikoaren artean?

Sistema publikoa gizarte baten beharrak asetzeko sistema da, gizartetik sortua baita. Eta sistema horren barnean dauden erakundeek behar horiek ase behar dituzte. Aldi berean, bertako langileak sistemaren tresnak dira, eta gizartearen beharretarako daude dauden tokian. Baina, beste hizkuntzekin gertatzen ez den bezala, euskararekin halako laguntza gehigarri bat eskatzen da. Diru-laguntzak eskatzen dira, ordezkapean eskatzen dira... Sektore pribatuan beste era batera funtzionatzen da. Uste dut pertsonarengandik atera behar duela euskararenganako grinak, euskaldunak oso gutxiarekin konformatzen gara. Eta, gainera, erakundearen beraren antolakuntzak etsipena sorrarazten du euskaldunarengan. Imajinatu Osakidetzan mediku erdaldun bat egokitzen zaiuzula, nahiz eta zuk euskarazko arreta aukeratuta izan. Orduan pentsatzen jartzen zara ea aldatuko duzun, baina, aldatzen badut, auskalo noiz arte itxaron beharko dudana... Eta azkenean gatazka publikoa barne-gatazka bihurtzen da.

Osakidetzan kokatuta, nola ikusten duzu euskara osasun-sistematan?

Uste dut egoera asko daudela. Eskualdeen arabera aldatzen da. Batzuetan hitzun-kopurua handiagoa da, eta besteetan txikiagoa. Eta bertako langileena ere antzerakoa da. Batetik, gizartearen joera linguistikoak islatzen dira eskualdeko osasun-sisteman. Eta, bestetik, lan-munduan bakarrik ez dago arazoa: hezkuntza-sisteman ere, medikuen formakuntza-bidean, hizkuntzaren

«Jabetu behar dugu euskararen arazoa ez dela euskaldunena bakarrik, baita erdaldunena ere»

arazo asko daude. Nahiz eta medikua euskaldun peto-pettoa izan, formakuntza-prozesua gaztelaniaz izan denean, oso zaila da kontzeptuak zein hizkera tekniko euskaraz egitea, formakuntza-prozesuan bertan ez baitira ikasiak izan. Eta horrek, hein batean, erdararako joerak sor ditzake lan-munduan.

Gaur egun, belaunaldi euskaldunena gazteen artean dago, eta lan-munduan integratzen ari dira. Euskarari ateak zabaldu behar zaizkio lan-munduan belaunaldi euskaldun horrek erabiltzen jarrai dezan bere bizitzako arlo guztietan.

Instituzio politikoaren aldetik euskaraplanek babes bat behar dute, orduan.

Babesa badago. Instituzio publiko guztiak behartuta daude euskaraplanak martxan jartzera. Pentsatzen dut indarririk handiena udaletan egin dela, tamainarengatik seguruenik. Baina Osakidetza bera, oraintxe, bere bigarren planean murgilduta dago 2019. urtera arte. Prozesua hasi berria dago, eta gainera luzeak eta mantsok izan ohi dira. Baina hor gakoa zera da: zuzendaritza eta erdi-mailako agintean dauden langileak inplikatzeko eta horiek sustatzaile nagusi moduan jartzea. Hein batean, horien pean dauden langileek beren jokabideak hartuko baitituzte. Langilearen borondatearekin bakarrik nekez egingo du euskarak aurrera. Azken finean, denaren ardatza adostasunak lortzean datza.

hizkuntza-baliabideak

BANA, BINA, HIRUNA. LAUNA, BOSNA, SEINA. ZAI, ZOI, BE

Zenbana galderari erantzuten diote izenburuko horiek, eta zenbakiei (zenbatzaile zehaztuei) –na atzikia erantsiz lortzen dira.

- *Bi farmazia-etxek beherakoaren kontrako txerto bana* garatu zuten.
- *Liburutegira hurbildu ziren guztiei bina liburu* eman zieten.
- *Sariak erosteko, ehuna euro* emango zaizkie herriei.

Beraz, argi dago «*Lau graduna* dituzte Bilbon, Donostian eta Iruñean» gaizki esanda dagoela, halakoak entzuten badira ere.

Erne, baina! *Mila* eta *milioi* zenbatzaileek ezin dute itsatsirik eraman –na banatzailea, eta *bana* ezartzen zaie ondoan:

- *Mila bana euro* igo diete soldata (Arraioa!).
- *Milioi bana euro* ebatsi zituzten, antza.

Horrenbestez, ez dira zuzenak hor nonbait eta noizbait g.g.b. idatzitako hauek:

- *Bi proiektuk 1.500 euro jasoko dituzte, eta gainerako hirurek milana euro.*
- *Madrilgo gobernua milioina pezeta* emango die.

Hauek, berriz, ondo daude eta zuzenak dira, batek gezurra dirudien arren:

- *Bi lanok lehen edizioa irabazi eta launa mila euroko laguntza jaso dute.*
- *Bartzelonak eta Real Madrilak berrehuna milioi euro jaso zituzten 2015eko denboraldian* telebista-eskubideengatik. (To!)

☞ [ariketak hemen](#)

MEDIKUNTZAKO HITZ GEHIXEAGO EUSKALTZAINDIAREN HIZTEGI BATUAN

☞ [Euskaltzaindiaren Hiztegia](#) hitzak gehituz doa pixkana-pixkana. Kaleratu duen azken argitaraldian 1.353 forma (1.058 sarrera eta 295 azpisarrera) gehitu dizkio Hiztegi Batuari, eta dagoeneko 37.884 sarrerak eta 6.944 azpisarrerak osatzen dute berori. Ez dira gutxi, alajaina!

Hiztegiaren erabiltzaileak dakienez, hainbat hitzen sarreretan espezialitate-markak daude: *Admin.* (Administrazioa), *Anat.* (anatomia), *Biokim.* (Biokimika), *Biol.* (Biologia), *Fis.* (Fisika), *Kim.* (Kimika), *Med.* (Medikuntza)... Marka horiek hitza hizkuntza arruntera igaro ez den neurrian bakarrik jarri dira. Hitz bat, espezialitate jakin batekoa izanik ere, eguneroko hizkuntzan erabiltzen baldin bada, sarrera horrek ez du markarik izango, gehienetan. Adibidez:

- **etilo** iz. *Kim.*
- **hidrogeno** iz.

Arrazoi horregatik, ziurrenik, *Med.* laburdura duten sarrerak 262 besterik ez dira. Horiek zein diren jakin nahi izanez gero, ☞ [hemen](#) bila litezke, jakite-arloaren eremuan *Medikuntza* aukeratuta eta *Bistaratu*-n klik eginda. Hona horietako batzuk, ez nolanauki aukeratuak:

- **diabetes** iz. *Med.* Odolean edo gernuan glukosa gehiegi izatea ezaugarri duen eritasuna. *Brasilen, 4,5 milioi lagunek dute diabetesa. Minbizia, diabetesa, bihotzeko gaixotasunak eta abar* ugaritu egin dira.
- **immunologia** iz. *Med.* Organismoen immunitate fenomenoaren azterketa. *Mikrobiologiaren eta immunologiaren inguruko eskolak.*
- **tetanos** iz. *Med.* Eritasun kutsakor larria, gorputzean zaurietatik sartzen den Nikolaiev-en baziloak sortua, giharen uzkurte mingarriak eragiten dituena. *Olibondo zahar haiek, ehunka urtekoak, bihurrituak, tetanosak jotako gaixoak ematen zuten. Tetanosaren aurkako txertoa.*

agenda

XIII. BERDINTASUNERAKO GUNEA

Ekitaldiak, hitzaldiak eta abar, hainbat herritan, abenduaren 18ra arte.

☞ [informazioa](#)

PATOLOGIA DUALEKO VII. JARDUNALDIAK: «ADIKIZIOA ULERTZEN, PSIKIATRIA ULERTZEN».

Abenduaren 1ean eta 2an, Bilbon, Bizkaiko Medikuen Elkargoan

☞ [egitaraua](#)

51. DURANGOKO AZOKA

Abenduaren 2tik 6ra.

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO II. DEIALDIKO PROBAK

Idatzizko proben emaitzak eta ahozkoa deitutakoen zerrendak abenduaren 2an argitaratuko dira.

Ahozko probak abenduaren 15ean eta 16an egingo dira EAeko hiru lurraldeetan.

☞ [webgunea](#)

HIZKUNTZA-ANIZTASUNARI BURUZKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

Abenduaren 15ean eta 16an, Donostian.

☞ [webgunea](#)

14. JOSE ANTONIO AGOTE SARIA

2016ko abenduaren 31 baino lehen bidali behar da lan osoaren aurrerapena.

☞ [informazioa](#)

OEE, OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN XXVII. BILTZARRA: «ANIZTASUNA OSASUNEAN».

2017ko martxoaren 31n eta apirilaren 1ean, Iruñean.

☞ [informazioa](#)

